

**II. ATALA**  
**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Busturiko Udala****Abinaga inguruko trafikoa arautzea**

Busturiako Udalbatzak, 2020ko ekainaren 3an egindako bilkuran, Abinaga aldeko trafikoa arautzeko Udal Ordenantzari hasierako onarpena ematea erabaki du.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 49. artikuluan eta Herri Administrazioen Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legaren 133.2. artikuluan xedatutakoaren arabera, testua jendaurrean jarriko da, eta interesdunei entzunaldia eskainiko zaie, 30 egunez; epealdi horretan, egoki deritzeten erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izango dituzte, zeinak aipatu organoak ebatziko dituen.

Epealdi horretan ez balitz erreklamazio edo iradokizunik aurkeztuko, behin-behineko akordioa behin betiko onartutzat joko da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 49. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Busturian, 2020ko ekainaren 8an. — Alkatea, Aitor Aretxaga Telletxea